

## **Ikasgela kudeatzeko teknikak**

### **Jim Scrivener**

#### **ZER DA IKASGELA BAT KUDEATZEA?**

Ikasgela bat kudeatzea zure ikasleek ikasteko duten prozesua kudeatzea da, ikasgela barruan gertatzen dena antolatuz eta kontrolatuz ...

- Edo ez antolatzeko eta kontrolatzeko nahita hartzen duzun erabakia.
- Edo kontrol hori ikasleen esku uzteko edo hari uko egiteko modua.

Horretaz gain, aukera horiek saihesten dituzunean edo haiekiko ezjakin zarenean gertatzen dena (edo gertatzen ez dena) ere bada.

Ikasgela kudeatzeko egiten dituzun aukerek lotura handia dute zure gelan sortuko den laneko giro bereziarekin (alegia, zer sentitzen den zeu irakasle zaituen ikasgela batean egotean). Hau da, ikasteko gogoia pizten digun leku atsegina edo aspergarria den, parte hartzeko gogorik eta inspiraziorik eragiten ez duena. Irakasteari eta ikasteari buruzko zure usteak islatzen dituzte: ikasleei eta beren potentzialari eta irakasle-ikasle harremanari buruz pentsatzen duzuna. Guztiek ikasgelarekiko zer harreman duten azaleratzen dute, baita zu zeu zati zaren ikaskuntza erakundeko hierarkiarekiko ere.

Teknika baten aldeko aukeraketa ororen atzean asmo bat dago -gertatzea nahi duzun hori-.

Ikasleak beti ikasgela osoko taldean antolatzen dituen irakasle bat, inoiz binakako edo taldeko lanaren beste edozer modalitate erabiltzen ez duena, seguruenik hezkuntzaren ikuspegi "tradizionalean" sinesten duen irakasle bat izango da, edo inoiz horretan asko pentsatu ez duen bat. Edo agian, halako irakaslea gauzen gaineko kontrola galtzearen beldur da, edo pentsatzen du ikasgela osoko irakaskuntza dela eskolak edo ikasleek espero eta eskatzen dutena.

Antzera, beste muturrean, ikasleek beti aurrea daramaten eta egin nahi dutena eta nola egin nahi duten erabakitzen duten eskolak ematen dituen irakasle bat sinesmen oso zehatz batzuetan oinarritzen den modu batean ariko da lanean seguruenik. Edo agian, besterik gabe, horixe da beti egin izan duena -eta hala jarraituko du- gauzak beste modu batera nola egin ez duelako oso argi.

#### **IKASGELA KUDEATZEA ETA METODOLOGIA BI GAUZA DESBERDIN DIRA**

Liburu honetan ez dugu irakasteko metodo bat jorratuko. Liburu honetako teknikak metodo guztien oinarrian daude. Agian atazetan oinarrituriko ikuspegi bat lantzen ari zara, edo gramatikaren itzulpen metodoa, ikuspegi komunikatiboa, eskuliburu batean oinarrituriko ikastaroa edo irakasteko beste edozer modu. Hemen landutako teknikak erabilgarri eta eraginkorrak izan beharko lukete, edozer metodo erabiltzen duzula ere.

Hori esanda, proposaturiko ideien atzean bada sinesmen eta balio sorta argi bat: irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduera eraginkorrena ikasleek parte hartzen dutenean, interesa dutenean eta lanean buru-belarri sartuta daudenean gertatuko den ustea. Hori gehiago gertatuko da ikasleei galde egiten zaien egoeretan, edo, behintzat, ikasten dutenaren eta ikasteko moduaren gainean nolabaiteko eragina edo zeresana duten egoeretan. Horren atzean, ustez, irakasleak eta ikasleek elkarrekin lan egiten duten gela bat egongo da, elkar errespetatuz eta babesa emanez hitz egin eta entzuten duen gela bat -eta ikasgelaren kudeaketa egokiak lotura handia du halako atmosfera bat sortzeko aukerak bultzatzearekin-.

## **DEFINIZIO ZABAL BAT**

Agian antzemango zenuen nik eman dudana "ikasgelaren kudeaketaren" definizioa termino hori bigarren hezkuntzan erabili ohi dena baino askoz ere zabalagoa dela. Izan ere, bigarren hezkuntzan erabiltzen den moduan, askotan, ikasgelako ordenari eusteari eta diziplinarekin loturiko arazoei egiten die erreferentzia. Argi dago diziplina ikasgelaren kudeaketaren arlo bat dela, baina bat besterik ez, eta interesgarria da ikustea nola ordenari eustearrekin loturiko arazo handi askori sarri errazago erantzuten zaien lehen begiratuan ustez loturarik ez duten ikasgelaren kudeaketari buruzko beste arlo batzuei helduta. Adibidez, testuinguru askotan, aurrerapausoak egiten badituzu ikasle guztiak ( eta ez bakarrik bi edo hiru bizkorrenak) gelako dinamikan parte-hartzearen arloan, orduan aukera asko dituzu ikasleak zure eskoletan gehiago inplikatzeko -eta horrek eragina izango du haien portaera egokian-.

## **IKASGELA BAT KUDEATZEA ZAILA DA**

Esku artean duzuna bezalako liburu batek nekez konponduko ditu munduko testuinguru guztietako ikasgeletako antolamendu-arazoak. Arazo indibidual bakoitzaren baitan badira egoera bakoitza berezi egingo duten ezaugarri desberdin asko (kokapenarekin, kultura-arauekin, tartean den jendearekin, eskuragarri den denborarekin, aurrekariekin, harremanekin, aldarteekin eta beste faktore askorekin lotuak).

Horrek esan nahi du nik ezingo dizudala esan inoiz zer egin. Ez dago libururik esango dizunik egoera jakin bakoitzean nola jokatu. Irakaskuntza eraginkor orok dagokion egoeraren nean uneko prozesatze aktibo bat behar du, baita eman beharreko hurrengo urratsari buruz etengabe aldatuko den gogoeta malgu bat ere.

Hartzen ditugun erabakietako batzuk egokiak eta erabilgarriak izango dira; beste batzuek, aldiz, ez dute inolako eraginkortasunik izango eta agian benetan txarrak izango dira. Oso normala da irakasleek arriskuak hartzea irakasle hobeak izateko ikasprozesuan. Denborak aurrera egin ahala, egoera jakin batzuetarako zer erantzun diren egokiagoak ikasten joango gara. Horretaz gain, ziurtatu behar dugu ez dugula pentsatuko erantzun horietako bat bera ere aldaezina denik -izan ere, aste batean ondo funtzionatzen duen erantzuna agian erabat okerra izango da hurrengoan-. Ikasgelaren kudeaketa on batek berekin dakar esperientziatik ikastea, baina inoiz ez uztea esperientzia horri gu pilotu automatikokan jartzen.

## **IKASGELA BAT KUDEATZEA ERRAZA DA**

Ikasgela bat kudeatzea zaila dela esan ondoren, azpimarratu nahi nuke, zenbait arlotan, benetan erraza ere badela.

Badira ikasteko errazak diren teknika praktiko txiki eta zehatz asko, saiatu eta praktikan jar ditzakegunak; haiei buruzko informazioa topatuko dugu, eta hobetu ahal izango ditugu, edozein irakasleren ikasgelako trebezia-sortaren barruan erabiltzeko -eta kasu askotan, horietako gehiago eskuragarri izateak irakasle hobe bihurtuko zaitu, argi eta garbi-.

Eta are gehiago esango dut: munduko irakasle gehienak funtsezko tekniketarik bostetan edo seitan benetan onak izango balira, orduan mundu osoko hezkuntzaren kalitatea nabarmen hobetuko litzateke. Irakasle esperientziadun askok gero eta kualifikazio handiagoa dute, sakon aztertzen dituzte hezkuntzaren alderdi jakin batzuk, eta ikasgelako profesional adituak direla esango genuke.

Baina, hala ere, ez dituzte ezagutzen minutu gutxitan beren irakasle- jarduna erabat aldatuko luketen oso oinarrizko teknika praktiko batzuk. Kasu horietan, irakasle horien eskolak 45 minutuz behatzeak eta ondoren atzerarikadura eta iradokizun argigarriak emateak eragin sakon eta berehalakoa izango luke haien irakaskuntza-jardunean.

## **ZERTARAKO BEHAR DUGU IKASGELA KUDEATU?**

Gure eguneroko bizitan -etxean, telefonoz, autobusean, kafetegi batean, Interneten edo beste testuinguru batzuetan- galderak egiten ditugu, hitz egiten dugu eta gauzak azaltzen ditugu, elkar eragin, antolatu eta kontrolatu egiten dugu, jarraibideak ematen ditugu, elkarri entzuten diogu eta abar-. Irakasle bihurtzen garenean, agian uste dugu trebezia arrunt eta natural horietako asko mundutik ikasgelara transferitzen direla zuzenean.

Ikasgela, dena den, ez da kanpoko mundua. Gerta liteke kanpoko munduan eraturiko gure ohiko erantzunek edo erantzun intuitiboek huts egitea eta, paradoxikoki, espero genuenaren guztiz kontrako emaitzak izatea.

Ikaskuntzarako giro interesgarri eta erabilgarriak sortzeko teknika berriak ikasi behar ditugu, edo agian ezagun ditugun batzuk berrikasi, ikasgelako giroan eraginkorrak izan daitezen; adibidez, nola hitz egin pertsona talde bati, nola eman jarraibide bat, nola antolatu eserlekuak, nola entregatu materialak, nola entzun arazo bat duen pertsona bati, nola erantzun baxuegi hitz egiten ari den pertsona bati eta abar.

Horiek dira guk gogoeta egitea behar duten teknikak, saiatu eta findu behar ditugunak (agian behin baino gehiagotan), egoki, eraginkor, normal eta instintibo bilakatu aurretik.

## **NORENTZAT DA LIBURU HAU?**

Liburu hau zuri zuzenduta dago, baldin eta ingeles-irakaslea bazara (ingeleza atzerriko hizkuntza, bigarren hizkuntza edo bestelako gisa). Proposaturiko ideiak egokiak izango dira

aurrez aurreko eskola sorta eta hezkuntza-testuinguru zabal baterako. Agian honako talde hauetako batean egongo zara:

- Hitzun natibo edo ez natiboa zara.
- Titulua eskuratu berri duzu edo esperientzia zabala duzu.
- Sektore publikoan edo pribatuan irakasten duzu.
- Haurrei edo helduei irakasten diezu.
- Gela eleaniztunei edo elebakarrei irakasten diezu.
- Ingelesa lehenengo hizkuntza, bigarrena edo atzerriko hizkuntza den herrialde batean irakasten duzu.
- Ingeles orokorra, CLIL edo espezializatua (negozioetarako ingelesa, ingeles akademikoa edo beste edozer helburu jakinetarakoa) ikasten duten ikasleei irakasten diezu.
- Edozer metodologia edo ikuspegi erabiltzen duzu.

Edozer motatako testuliburu, baliabide eta materialak erabiltzen dituzu, edo bat ere ez. Ikasgelaren kudeaketari dagokionez, bertan arrakastaz egin dezakezunaren atzean dagoen antolamenduko oinarrizko arloetan erreparatu nahi dugu, edozein dela ere zure irakasteko lekua edo modua, edozein dela ere zure abiapuntua.

Liburu honek ezin ditu konpondu zure gela kudeatzeko oraingo arazoak, baina zenbait pertsonarentzat eta testuinguru eta egoera desberdinetan eraginkorrak izan diren hainbat teknika irakatsiko dizkizu. Irakurri, zuretzat erabilgarriak direnak erabaki, zenbait ideia martxan jarri eta ikasgelan gauzatzeko balizko zure ekintzen zorrora gehi ditzakezu, egokitzat jotzen duzunean erabiltzeko. Agian ez dizute guztiek funtzionatuko gelan, baina askok bai, eta funtzionatzen ez dutenek gogoetarako bidea ireki eta zure konponbideetan pentsaraz diezazukete.

## **ZER AURKITUKO DUZU LIBURU HONETAN?**

Ikasgela kudeatzeko teknikak liburua zazpi kapitulutan dago banatuta:

1. Ikasgela. Kapitulu honek irakaskuntza/ikaskuntza espazioari erreparatzen dio, eta hura ondoen antolatu eta eskaintzen duenari nola etekina atera aztertzen du.
2. Irakaslea. Irakaslea ikasgela barman nor den aztertuko dugu, baita ere nola eragin dezakeen ikaskuntza aurreratuagoa izan dadin, eta zer aldaketa egin ditzakeen here ekintzetan, erreakzioetan eta portaeran ere hau kendu.
3. Ikasleak. Ikasleak nor diren galdetuko dugu eta nola lan egin dezakeen irakasleak taldearekin eta norbanakoekin.
4. Funtsezko esku-hartzeak. Kapitulu honetan xeheki begiratuko diegu irakasleek jokatzeko, hitz egiteko eta gauzak egiteko dituzten hamalau moduri.
5. Interakzioa erraztea. Ikasleak irakaslearekin eta euren artean ingelesez komunika daitezten lortzea hizkuntza irakaslearen lanaren zati garrantzitsu bat da. Kapitulu honek interakzio gehiago eta kalitate hobegokoak lortzeko aholku praktikoa asko eskaintzen ditu.

6. Portaera egoki bat ezartzea eta hari eustea. Diziplinak berekin dakar ez bakarrik portaera kaskar baten ostean zigorrak ezartzea, baizik eta lortu nahi dugun portaera egokia sustatuko duen lan egiteko modu bat baliatzea. Kapitulu honetan bi angeluetatik begiratuko diogu gaiari.
7. Eskola/ikasgaia. Azken kapituluak eskola-irakaskuntzarekin zuzenean loturiko auzi sorta bat jorratzen du, atazak egiteko moduak, eta materialetarako eta baliabideetarako hurbilketak barne.

Seguruenik pertsona gehienentzat hau ez da izango goitik behera irakurtzeko liburu bat (nahiz eta hori lagungarria izan, bereziki irakasle berrientzat edo prestakuntza-fasean direnentzat). Hori dela-eta, zeharkako erreferentzia asko sartu ditut irakurri ez dituzun liburuaren zatietara jo dezazun, bertan esku artean duzun gaiarekin loturiko iradokizunak aurkituko baitituzu. Erreferentzia horiek "x, kapituluko x. unitatea" formatuan egin ditugu, non "kapitulu" hitzak liburuko zazpi atal nagusietako bati egiten dion erreferentzia, eta "unitate" hitzak, kapitulu bakoitzaren barneko azpiatal bati.

Nire ustez bi modutara hurbil zaitezke esku artean duzun material honetara:

- Zure egungo irakaskuntza-jardueran duzun ikasgelaren kudeaketa- arazo bati aurre egiten diozunean, martxan jartzeko teknikak, estrategiak eta hurbilketak bilatzeko kontsulta dezakezu liburua. Ideia bat bera ere zure egoera bereziari egokitzen ez zaiola eta loturarik ez duela sentitzen baduzu ere, antzeko arazoei eta konponbideei buruz irakurtzeak agian lagunduko dizu ideiak argitzen eta irtenbide berriak bilatzen.
- Garapen profesionalaren bila bazabiltza eta zure irakaskuntza- jardueran aurrera egin nahi baduzu, zenbait ideia eta iradokizun praktikoko hautatu eta haiek sakonago azter ditzakezu, eta gero zure eskoletan aplikatu.

Atal bakoitzaren amaieran "Gogoetarako galderak" jarri ditut materiala zure praktikarekin lotzen laguntzeko eta zenbait gairi buruz sakonago pentsarazteko.